

getxoBerri



Getxo

bizi ezazu



#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1461 zb.

www.getxo.eus

Ekainak 29

>> Uztailak 9

2017

/ Nabarmentzekoak

- > Punta Begoñako zeramiken garbiketa, uztailako bisita gidatueta gaia (2. or.)
- > Kirol eta aisialdi osasungarria aurtengo udan ere Ereagako hondartzan (3. or.)
- > Getxo Futbol Eskolako koordinatzailea Perura joango da lankidetzat proiektu batean parte hartzeko (3. or.)

Ramadanen amaierako jaia, Aid al Fitr, Romon eta Algortan (4. or.)



Neguriko Jaiak. Uztailak 7, ostirala, 18:30ean, Gernika parkean, txupinazoa eta jaitsiera, kalejira eta buruhandiak... Egitarua hilaren 9ra arte, igandea.

Getxoko XXVII. Nazioarteko Tenis Txapelketa. Uztailaren 1etik 9ra arte R.C. Jolasetaren instalazioetan.

A-
GENDA



Urrea Castroviejorentzat, erlojupekoan

Jonathan Castroviejo txirrindulari getxotarra (Movistar taldea), Espainiako txapelduna izan da hirugarren aldiz bere kirol ibilbidean, erlojupekoan. Iaz lortu zuen zilarrezkoa hobetu du. Azken zazpi txapelketetan Algortakoak eskuratu dituen hiru urrezko dominei beste hiru zilarrezko eta brontzezko bat gehitu behar zaizkie. Castroviejo da, gainera, egungo Europako txapelduna eta Munduko hirugarrena, modalitate honetan. Lasterketan, Jonathan gailendu zen 53:26 markarekin, Mikel Landa (Sky) eta bere taldekide Jesús Herradaren aurretik.



Munta handiko skatea Arrigunagan

Euskaltel La Kantera Pro nazioarteko skate txapelketaren finalek ikuskizun aparta eskaini zuten, bira eta airekoenak, iragan larunbatean Arrigunagako pool-ean; pista horren inguruan goi mailako ikuskizuna zuzenean ikusteko bildu ziren mila lagunak gozatu ederra hartu zuten; Getxoko Skate Asteari amaiera eman zitzaion ekitaldi horrekin. Profesionalen mailan, kaliforniar oso gazte bat, 13 urte baino ez ditu, CJ Collins izan zen probako txapelduna, oso gaztea izanagatik patin gainean maisutasun handia erakutsi eta gero. Emakumezkoetan, Yndira Asp brasildarra izan zen onena eta Masters kategorian beste kaliforniar batek jantzi zuen txapela, Nicky Guerrerok (hirurak argazkian dira).

Getxo, Jazzaren doinueta murgilduta

Getxok Euskadiko Jazz zirkuitua zabaldu du 41. Nazioarteko Jazzaldiarekin. Bertan izen handiko artistak eta musikari gazteak bilduko dira 17 kontzertu eskaintzeko igandera arte, uztailak 2. Kontzertu nagusiak Biotz Alai plazan izango dira eta ostegunean, ekainak 29, Christian Scott Quintet protagonista izango da. Musikari estatubatuarren belaunaldi berriko tronpetatzaile onenetako bat da; kritikoez jazz berriaren erregetzat jotzen dute, besteak beste genero hori hip hop eta rock estiloetako erritmoekin fusio berezi bat egiten duelako.

Ostiralean, hilak 30, Bill Evans saxofonista handia proiektu berri batekin itzuliko da Dean Brown gitarrista apartarekin batera. Proiektu hori All Stars laukotearekin, Toto taldeko batera-jotzailearekin (Keith Carlock) eta John McLaughlin-en baxu-jotzailearekin (Etienne Mbappe handia) egina da. Larunbatean, uztailak 1, Getxok harrera egingo dio Dianne Reeves-i, hain zuzen ere. Bost Grammy sari ditu dagoeneko, ahots-interpretazio onenaren kategorian. Gainera, besteak beste, honako pertsona nahiz talde ospetsuekin batera abestu eta grabatu du: Wynton Marsalis artistarekin, Chicagoko Orkestra Sinfonikoarekin eta Berlingo Filarmonikarekin.

Igandean, uztailak 2, Chucho Valdés arduratuko da jaialdiari amaiera bikaina emateaz, jazz afro-kubatarren oina-



rrizko artista baita. Izan ere, 8 Grammy sari dauzka jada eta Irakere bezalako talde ospetsuetan egon da; horrela, artista kubatar honek askotariko generoetan duen maisutasuna erakutsi du. Halere, Algortako Geltokia plazan, Hirugarren Milurtekoa izeneko atalaren kontzertuak egongo dira; Biotz Alai plazan Talde Lehiaketarenak eta Algortako The Piper's Irish Pub-ean jam sessionak. Era berean, familia osoarentzako bi ikuskizun egingo dira eta Torrene Aretoak José Hornaren *Jazz for Two... and Two for Jazz!* erakusketa hartuko du.

Bote Tours bueltan da: aurten eguneko zerbitzu gehiago eta bisita audio-gidatuak

Hurrengo igandean, uztailak 2, berri ere martxan jarriko da *Bote Tours* zerbitzu turistikoa, Getxo, Portugalete eta Santurtzi udalerriek sustatutako ekimena, Bizkaiko Aldundiaren eta Portuko Agintaritzaren laguntzarekin. Zerbitzua emango da irailaren 28 arte eta, nobedade gisa, aurten eguneko zerbitzu gehiago eta bisita audio-gidatuak eskainiko ditu, euskaraz, gaztelez, ingelesez edo frantsesez.

Zerbitzua martxan egongo da astearte, ostegun eta igande guztietan, honako egun hauetan izan ezik: uztailaren 16an, abuztuaren 17, 22 eta 24an, eta irailaren 17an. Eguneko bost irteera izango dira (2016an hiru). 11:30ean hasiko dira eta 18:55ean amaitu. Ontzian bertan, gidari batek Itsasadarraren historia kontatuko



du, baita ibilbidearen gune aipagarrien ezaugarri nagusiak ere. Ontziratzeko guneak izango dira: Areatako eta Portugaleteko ontziralekuak eta Santurtziko eta Getxoko Kirol Portuetako pantalan lagungarriak.

Txartelaren salneurria 8 eurokoa da -euro bat 3 urte baino gutxiago dutenentzat-, eta egunean zehar inolako mugarik gabe erabili ahal izango da, nahi duten ontzi-aldaketa eginez. Txartela ontzian erosteko aukera egongo da eta, lekua erreserbatu nahi izanez gero, aukera dago info@elbotebilbao.com helbide elektronikoaren bitartez, www.elbotebilbao.com web gunearen bitartez edo telefono zenbaki hauetan: 94 491 08 00 (Getxo Turismo Bulegoa) edo 94 483 94 94 (Santurtzi Turismo Bulegoa).



EGKAINAK 29 OSTEKUNA

41. Nazioarteko Jazzaldia. Algortako Geltokia plazan, 19:00etan, Hirugarren Milurtekoa atalean, Alberto Arteta Group (Nafarroa). Sarrera dohainik. Biotz Alai plazan, 21:00etan, Talde Lehiaketan, Sun-Mi Hong Quintet. Jarraian, Christian Scott Quintet. Sarrera: 13€. Abonua: 70€. Algortako The Piper's Irish Puben, 24:00etan, jam saioak Cuarteto y Taca taldearen eskutik. Sarrera dohainik.

EGKAINAK 30 OSTIRALA

41. Nazioarteko Jazzaldia. Algortako Geltokia plazan, 19:00etan, Hirugarren Milurtekoa atalean Daahoud Salim Quintet (Espainia-Alemania-Hego Korea). Sarrera dohainik. Biotz Alai plazan, 21:00etan, Talde Lehiaketan, Malstrom. Jarraian, Bill Evans & Dean Brown Band. Sarrera: 13€. Abonua: 70€. Algortako The Piper's Irish Puben, 24:00etan, jam saioak Cuarteto y Taca taldearen eskutik. Sarrera dohainik.

UZTAILAK 1 LARUNBATA

41. Nazioarteko Jazzaldia. Algortako Geltokia plazan, 13:00etan, familia osoarentzako saioa Andrés Isasi Eskola Gazte Sextet (Getxo) taldearen eskutik, eta 19:00etan, Hirugarren Milurtekoa atalean, Giulia Valle Trio (Katalunia). Sarrera dohainik. Biotz Alai plazan, 21:00etan, Talde Lehiaketan, Claudio Jr. De Rosa Jazz 4et. Jarraian, Dianne Reeves. Sarrera: 25€. Abonua: 70€. Algortako The Piper's Irish Puben, 24:00etan, jam saioak Cuarteto y Taca taldearen eskutik. Sarrera dohainik.

Getxoko XXVII. Nazioarteko Tennis Txapelketa. Hilaren 9ra arte R.C. Jolasetaren instalazioetan.
XXXII. Bizkaiko Txapelketa-I. Mercedes-Benz Aguinaga Kopa. 40 belaontzi inguru arituko dira garai-penaren bila Abrako uretan. Antolatzailer: Maritimo del Abra-R.S.C. Elkarte.

UZTAILAK 2 IGANDEA

41. Nazioarteko Jazzaldia. Algortako Geltokia plazan, 13:00etan, familia osoarentzako saioa El viaje de Emma (Asturias) taldearen eskutik, eta 19:00etan, Hirugarren Milurtekoa atalean, The Machetazo (Madrid). Sarrera dohainik. Biotz Alai plazan, 21:00etan, Talde Lehiaketan irabazlea. Jarraian, Chucho Valdés Quartet. Sarrera: 25€. Abonua: 70€.

XXXII. Bizkaiko Txapelketa-I. Mercedes-Benz Aguinaga Kopa. 40 belaontzi inguru arituko dira garai-penaren bila Abrako uretan. Antolatzailer: Maritimo del Abra-R.S.C. Elkarte.

UZTAILAK 3 ASTELEHENA



- Ingelesa azterketa ofizialak prestatzeko eskarmentua duen lizentziadu baten eskutik. Maila guztiak. Emaita onak. Tel.: 620

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukiarren egiazkotasunaren erantzule izango.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri Getxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-ri lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazioko zinegotzia: Amaia Agirre. Zuzendaria: Javier García. Erredaktoreburua: Itziar Aguayo. Erredakzioa: Nekane Ardanza,

Letren Terrazak. Gernika parkean (Neguri) eta Iturgitxi (Algorta) eta Sarri (Andra Mari) plazetan, uztailearen 28ra arte, eta Areetako Geltokia, Algortako Geltokia eta Aldapa (Algorta) plazetan abuztuaren 1etik 31ra, kale liburute-giak. Orduetia: 11:30-13:30 eta 17:30-20:30 astelehenetik ostiralera. Eguneroko eta astean behin-neko aktibitateak.

Gaurik laburrena. Algortako Biotz Alai plazan, 21:00etan, film laburren erakustaldia. Gaztelaniaz. 16 urtetik gora. Sarrera dohainik.

UZTAILAK 4 ASTEARTEA

Gaurik laburrena. Algortako Biotz Alai plazan, 21:00etan, film laburren erakustaldia. Euskaraz. 16 urtetik gora. Sarrera dohainik.

UZTAILAK 5 ASTEAZKENA

Bertso saio mundiala. Biotz Alai plazan, 21:00etan, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Beñat Gazteluminde, Onintza Enbeita, Jone Uria eta Xabier Paia. Sarrera dohainik.

UZTAILAK 7 OSTIRALA

Neguriko Jaiak. 18:30ean, txupinazoa eta jaitziera, kalejira eta buruhandiek; gaztelu puzgarria; 20:00etan, Hodei magoa; 21:00etan, aukien jokoa eta 22:00etan, haur berbena Ttiki Ttaka Irratia, Gernika parkean. Asteburu osoan zehar jakia bilduko ditu Bizkaiko Elikagaien Bankuak, jai batzordearen laguntzarekin.

“Abby Potxola” ikuskizuna. 20:30ean, Biotz Alai plazan, Otxandategi Abestaldea (Berango) eta Jammu ballet (Senegal) taldeen eskutik. Sarrera: 10€. Salmenta: Gure Esku Dago-ren lokalean (Telletxe 3), astelehenetik ostiralera, 18:30etik 20:00etara; larunbatetik, 12:00etatik 14:00etara; eta ikuskizunaren egunean, leihatilan.

UZTAILAK 8 LARUNBATA

Neguriko Jaiak. Gernika parkean, 11:30ean, umeentzako puzgarriak; 12:00etan, Plater irekia txapelketa; 12:15ean, Zirkoko eskola tailerra; 12:45ean, igel txapelketa; 13:00etan, marrazki lehiaketa; 16:30ean, mus txapelketa; 17:30ean umeentzako triple txapelketa; 18:30ean, haurrentzako antzerkia; 20:00etan, Kale antzerkia (Eusko Jaurilaritzaren “Kale antzerkia bultzatuz” jaialdia): “Tina”, Zirkun Zirkun taldearen eskutik. Euskaraz. 21:00etan, Xaibor diskofesta.

UZTAILAK 9 IGANDEA

Neguriko Jaiak. Gernika parkean, 11:30ean, gaztelu puzgarria; 11:45ean, paella txapelketa; 12:00etan, ping-pong txapelketa; 12:15ean, herri kirolak; 12:30ean, txapela jaurtiketa; 13:00etan, bizikleta geldoen lasterketa; 18:30ean, mozzorro txapelketa; 19:30ean, play back txapelketa (musika eraman); 20:30ean, sari banaketa, eta 21:00etan, jai amaiera.

60 82 32.

- Errentan ematen dut garaje plaza bat Romon. Tel.: 655 70 52 76.

- Hirueledun ikaslea (euskera, ingelesa eta erdera) udan zehar umeak zaintzeko, edota udalekuetara eramateko eta etxerako lanekin laguntzeko eskaintzen da. Zaltoa: 688 64 91 06.

- Errentan ematen dut garaje plaza bat trastelekuarekin Algortan. Tel.: 618 60 24 67.

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel.:94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxoberri@getxo.eus Arte arduradunak: Flash Composition SL Inprimaketa: Editorial Iparragirre S.A. Banaketa: Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua Gordailu legala: BI-388-87



Punta Begoñako zeramiken garbiketa, uztaileko bisita gidatuetako gaia

Uztailaren 4tik 30era, Punta Begoñako bisita gidatuetan, galerietako zeramika apaingarriek jasaten dituzten kalteen berri emango da; halaber kalterik eragin gabe lehengoratzeko nola garbitzen dituzten azalduko da ere.

Aurten, bisita gidatuetan, erakusketa berriak daude hila-bete guztietan, ondare-multzo hau berreskuratu eta balioan jartzeko proiektuaren aurrerapenen berri emateko.

Zeramikek honako kalte hauek dituzte batez ere: ekintza bandalikoek eragindako pintadak edo grafitiak, kaltzifikazioak (azulejoen dekorazioa estaltzen

duten kare geruzak, morteroen, hormen eta zutabeen disoluzioak eragindakoak), patina zurixkak (zutabeetako degradazioa, azulejoak batzeko kareorearen osagaiak disolbatu dituzten hezetasunek eragindakoa) eta enpasteak (grafitien antzeko degradazioak, baina dentsitate handiagokoak, ezabatzeko zailagoak diren tinta mota bat dutelako).

Bisita gidatuetan parte hartzeko izenematea: <https://eudala.getxo.eus/ReservaVisitasPB/ReservaVisitasPB.aspx> edo 94 491 08 00 telefonoaren bidez (Turismo Bulegoa).



Azaroak 5, Gure Esku Dagoren kontsulta

Erabakitzeo eskubidearen aldeko Gure Esku Dago ekimenak herri galdeketa bat antolatu du gure udalerrian azaroaren 5erako. Aurretik, irailean, parte hartzeko dinamika bat antolatuko du non kontsultako galdera ebatziko den. Urtearen hasieratik, taldeak Getxon 7.448 sinadura batu ditu erabakitzeo eskubidearen alde (populazioaren %11).



Concepción García Villalvillaren 101garren urtebetetzea

Imanol Landa Getxoko alkateak Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari batekin batera, joan den astean Areetan Concepción García Villalvilla andreari bisita egin zioten 101 urte bete zituela eta. Erandion jaioa, bertan Francisco Landa bere senarrarekin batera *Ultramarinos Landa* denda ezaguna izan zuen, eta erretiroa hartu zuenetik Areetan bizi da. Orain dela 21 urte alargun geratu zen. Concepciónek hiru alaba ditu, 9 iloba eta 13 biloba. Senitarteko batzuek lagunduta ilusio handiz ospatu zuen urtebetetzea. Ohikoa den bezala, Concepción García agintarien eskuetatik jaso zituen Aixerrotaren oroigarri bat eta lore sorta bat.

624 ekarpen Santa Ana hobetzeko

313 lagunek 624 ekarpen egin dituzte hobekuntzak egiteko Areetako Santa Ana auzoan, bertan maiatzaren 19tik ekainaren 4ra bitartean egindako *Getxo Txukun* parte-hartze izaerako programan honako inguru honetan: Eduardo Coste kaletik –Gobela kalearekin batzen den guneraino–, Gobela, Ibaigane eta Amaia kaleak –Getxoko alde–, eta Errebitarte kaleraino –Getxoko eraikinak–.

Jasotako proposamenak 267 izan ziren, horretarako jarri ziren buzoietan (201) eta karpentan (66). Gainera, 46 pertsonak www.txukungetxo.net atariaren bitartez bidali zituzten euren ekarpenak.

Jasotako iradokizunak aztertu, kuantifikatu eta baloratu egin dira, gaiaren arabera eta Udaleko arlo erantzule zuzenaren arabera sailkatuz. Jasotako ekarpenak honako arloekin zerikusitu dute: Hirigintza, Lanak, Zerbitzuak, Ondarea eta Etxebizitza (242); Ingurumena (229); Presidentzia –Zerbitzu Orokorrak, Udaltzaingoa, Babes Zibila eta Bide Publikoa– (63); Kultura (12); Ogasuna, Sustapen Ekonomikoa eta Giza Baliabideak (10); Giza Zerbitzuak eta Esku-hartze komunitarioa (6); Komunikazio, Herritarrei Arreta, Gardentasuna eta Herritarren Partaidetza (3). Prozesuaren eremutik (Santa Ana) at egiteko 56 proposamen jaso ziren eta beste 3 udalaren eskumenekoak ez zirenak.

Inkesta lehen sektoreari buruz

Udaleko Ekonomia Sustapenerako arloak beste ekimen bat jarri du martxan jasotzeko herritarren iritzia eta iradokizunak udalerriko lehen sektoreari buruz. Getxoko lehen sektorea garatzeko planaren idazkeraren bigarren fasea da hori. Aldez aurretik, martxotik ekainera bitartean, zenbait erakunderen, elkarteren eta ekoizpen eragileren ekarpenak jaso ziren.

Nahi dutena da sektoreari buruz herritarren iradokizunak eta iritzia batzea, ahalik eta era zabalen. Horrekin batera, Ekonomia Sustapenerako arlotik, lehen sektorearekin zerikusia duten udalerriko profesionalen eta jarduera ekonomikoen iradokizunak eta iritzia ere jasoko ditu.

Ekainaren 29tik irailearen 15era arte galdetegi bat jarriko da herritarren esku, udal webgunean, <http://www.getxo.eus/eu/getxolan/cuestionarios/cuestionario-ciudadania>. Bertan herritar guztiek euren ikuspegia azaldu ahaliko dute, modu guztiz anonimoz.



Getxo Futbol Eskolako koordinatzailea Perura joango da lankidetzako proiektu batean parte hartzeko

Getxoko Futbol Eskolako koordinatzailea den Asier García Perura joango da lankidetzako proiektu batean parte hartzera, Udaleko Lankidetzako Garapenerako sailaren, Getxo Kirolaren eta Zabalketa Gobernu Kanpoko Erakundearen arteko elkarlanari esker. Kirol entrenatzailea Cuscora abiatuko da, uztailearen 1etik 23ra, hango entrenamenduetan erabilitako metodologian laguntzeko. "Lankidetzako proiektu honen alde egiten dugu, udalaren eta Gobernu Kanpoko Erakunde baten arteko lanaren fruitua dena, eta gainera kirol mailako laguntza ere duena. Futbol-helburuaz gain, motibazioa eta elkartzasuna, lan-taldea eta sakrifizio bezalako baloreak lantzea da helburua, ezin ditugulako ahaztu ingurunearen zailtasunak, tokia itsasoaren mailaren gaineko 3.500 metroko altueran dagoelako", nabarmendu du Irantzu Uriartek, Garapenerako Lankidetzako zinegotziak.

Hain zuzen ere, entrenatzaile getxotarrak hainbat komunitatetako irakasleei entrenamenduetako metodologiari buruzko 40 orduko heziketa eskainiko die. Gainera, lehenengo astean Peruko talde historikoetako bat den eta orain herrialde horretako bigarren mailan aritzen den Cuscoko Club Cienciano izeneko haurren taldearekin landuko ditu entrenamenduak. Ondoren, Asier García

inguruko tokiko komunitateak bisitatuko ditu, horien entrenatzaileekin eta jokalariekin jarduteko. Azkenik, azken astean txapelketa txiki bat antolatuko du Cuscon, ikasitakoa praktikan jartzeko eta baita hango gazteak motibatuzko ere.

Bost domina Raspas eta Getxorentzat arraun olinpikoko estatuko txapelketan

Raspas del Embarcadero eta Getxo Arraunek bost domina lortu dituzte, guztira, aulki mugikorreko Espainiako talde Txapelketan; Sevillan egin da pasa den asteburuan, gazte, 23 urtez azpiko eta absolutuen kategorietan. Ordezkaritza getxotarraren bost dominetatik hiru Raspas Arraunentzat izan dira: emakumezkoen maila absolutuan, urrea skiffean eta brontzea skull bikoitzean; eta zilarra gizonezkoen 8+ ontziko gazteentzat izan da.

Getxo Arraunek, bestalde, bi zilar irabazi ditu: emakumezko absolutuen skull bikoitzean eta gizonezkoen 4+ gazte mailan.

Txapelketako sailkapen orokorrean, Raspas 7. izan da eta Getxo 13. Txapel-duna Club Náutico Sevilla izan da, eta bigarren eta hirugarrenak izan dira, hurrenez hurren, Tortosa eta Real Círculo de Labradores elkarteak.

Kirol eta aisialdi osasungarria aurtengo udan ere Ereagako hondartzan

Ereagako hondartza kirol eta aisialdi osasungarriko jardueren bitartez dinamizatuko da udako denboraldian. Jarduerak Getxo Igeriketa Waterpolo Kluba koordinatuko ditu, eta txikiengatik aisia eta kirol arloko jarduerak eta adin guztietarako talde-ibilaldiak eta aerobic eta paddle ikastaroak egongo dira.

Aisia eta kirol arloko programa 4 eta 8 urte arteko umeentzat izango da. As-teartetan eta ostegunetan egingo da 18:30etik 19:30era uztailean zehar, eta eguneko 3€-ko kostua izango du (uztailaren 1ekoak kenduta, doakoa izango delako). Ibilaldiak doakoak izango dira, eta astelehenean eta asteazkenean egingo dira 10:00etatik 11:00etara. Gainera, egun horietan eta ordu berean aerobic-eko doako klaseak emango dira. Ereagako jardueren eskaintza osatzeko, paddle surf klaseak emango dira astelehenean ostegunera, 18:00etatik 20:00etara. Astelehenean eta asteazkenean, teknika eta erresistentzia hobetzeko klaseak egingo dira, eta as-teartetan eta ostegunetan SUP fitness klaseak; hau da, paddle surfa eta oholaren gaineko oreka-ariketak konbina-



tuta, core-a (sabelaldea) indartzeko. 10 saioko bonoa 40 € ordaindu beharko da oholaren emanez gero eta 80 € alokatu behar bada.

Programazioa xehetasunez ezagutzeko, interesatuak harremanetan jar daitezke klubekin honako posta elektronikoen bitartez: getxoibke@gmail.com (igeriketa-kluba) eta clubnorthwindgetxo@gmail.com (paddle surf kluba).



Olanak banatuko dira, Palleterako.

Uztailaren 23an, igandea, ospatuko da Aixerrotako Palletera Txapelketa eta Ixas Argia Elkarteak honako hau gogorazten du: olanak aurreko urteetatik dutenei uztailaren 10 eta 11n, astelehenean eta asteartean, banatuko zaizkie, 19:00etatik 21:00etara, elkartearen egoitzan bertan. Olanak jasotzeko beharrezkoa izango da txartela aurkeztea, iazko olanaren zenbakiarekin. Egun horietan ere enkargatu ahalko dira izotz eta izotz zuria. Halaber, ostegunean, uztaileak 13, ordutegi berean, libre duden olanak zozketatuko dira. Prezioak honako hauek dira: 45€ (olan erdia) eta 90€ (olan osoa), gehi 25€ko fidantza. Uztailearen 26an bilduko dira olanak eta itzuliko da fidantzaren dirua, 19:00etatik 21:00etara.

Txanda berria Letren Terrazentzat.

Berriro ere dator kiguru Letren Terrazak uztailearen 3tik abuztuaren 31ra eta, ohi bezala, irakurketaren mundua hurbilduko diete txiki zein helduei. Horrela, uztailearen 3tik 28ra Gernika parkean (Neguri) eta Iturgitxi (Algorta) eta Sarri (Andra Mari) plazetan kokatuko dira kaleko liburutegiak; eta abuztuaren 2tik 31ra, Areetako eta Algortako Geltokia eta Aldapa plazetan. Ordutegiak: 11:30-13:30 eta 17:30-20:30, astelehenean ostiralera. Jarduerak antolatuko dira egunero (ipuinak eta prentsa; koloretzatze irudiak, denbora-pasak, mahai-jokoak etab.), baita astean behin ere (jolas tradizionalak eta familiartekoak, literatura eta birziklatze tailerrak, mad science, ipuin-kontaktak, dantza, magia...).

Bertso Jaialdi Mundiala dator.

Algortako Biotz Alai plazak hartuko du datorren asteazkenean, uztailearen 5ean, XIX. Bertso Jaialdi Mundiala. Algortako Bertsolari Eskolako (ALBE) bultzatutako ikuskizuna da eta esperimantazioa du ardatz nagusia. Ikuskizuna 21:00etan hasiko da, sarrera dohainik da, eta bertan punta-puntako sei bertsolari ariko dira: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi, Onintza Enbeita, Jone Uria eta Xabier Paya. Horrekin batera, publikoaren partaidetza behar duten sorpresa eta jardura ugari izango dira. Gai hautaketan zein horien tratamenduan berrikuntza lortzea ditu helburu nagusiak ekimen honek. Halaber, bertsolarien arteko elkarrekintza bilatzen du eta baita horien eta publikoaren artekoa.

Film laburren maratonia, Algortan.

Aurten ere, zinema gustuko dutenek *Gaurik laburren* ekimenaz gozatu ahal izango dute udan, zuzendari gazteen film laburren proiektioak. Nahitaezko hitzordua da film laburren zaleentzat, uztailearen 3an eta 4an, astelehen eta asteartean, egingo dena; gai askotariko jatorrizko lanak ikusteko aukera eskaintzen du. Gainera, ekimen hori zuzendari berriak bultzatzeko plataforma da. *Gaurik laburren*-ren saiok Algortako Biotz Alai plazan egingo dira, 21:00etatik aurrera, eta sarrera dohainik da. Lehenengo egunean 18 film labur ikusi ahalko dira, gaztelaniaz, eta bigarrenean beste 11, euskaraz. Emanaldiak ez dira gomendatzen 16 urtetik beherako adingabekentzat.

Ramadanen amaierako jaia, Aid al Fitr, Romon eta Algortan

Uribe Kostako Islamiar Komunitateak *Aid Al Fitr* izeneko Ramadaneko baraualdia eteteko jaia ospatu zuen pasaden igandean, ekainaren 25ean, Romoko San Jose elizak horretarako utzitako lokalean. 08:00etan hasi eta 11:30 aldera amaitu zen ospakizuna. Leioa Ireki Leioako Islamiar Kultur Elkar- teak antolatutako saio horretan 75 bat pertsonak hartu zuten parte eta horiek otoitz kolektiboa egin zuten. Ondoren, otoitza amaitutakoan, lokalean bertan prestatuko hamaiketakoan jan zuten, Euskal Herriko beste udal-erri batzuetan egin duten moduan.

Bestalde, astelehenean, hilak 26, topaketa-ospakizuna ere izan zen Harribide Fundazioak Bizkaian dituen etxebizitzetan bizi diren gazte musulmanen eta gonbidatutako komunitate katolikoaren artean. Oraingo honetan, Algortako San Nikolas elizaren egoitzan egin zuten batzarra. Hitzordu horretan bazkaria, tea eta musika izan ziren eta 40 bat lagun bertaratu ziren, gazte, boluntario eta parrokiako kideen artean. Imanol Landa alkatea ere hurbildu zen uena partekatuz, bertoko eta etorkinen arteko bizikidetzaren sustatzen duen ekintzaren alde egiteko, *“oso ekimen interesgarria dela uste dut, kultura eta zibilizazio desberdinen arteko elkarriketa, eta harremana bultzatzen dituen. Oso eredu ona islam-fobia era kezka- garran hedatzen den garaian”*.



Kultura- artekotasunaren aldeko ekintzak

Elkartzeko eta ospatzeko guneak sortzeko eta errazteko Bizilagunak ekimenak txango bat antolatu du datorren uztailaren 9rako, iganderako, Arabako Valderejoko Parke Naturalera joateko. Mendian ibiltzeaz gain, hainbat lekutako mito eta kondairak (Euskal Herrikoak eta atzerrikoak) ere konpartituko dituzte umeez eta helduek.

Getxoko Etorkinen Plataforma Federazioak, Ibilki eta Egizu elkarteek, Kontularien klubak eta Udalak sustatutako Zurrumurrurik ez Estrategiak antolatuta, jardura doakoa izango da, baina izena eman behar da aurretik 644277155/644595191 telefono zenbakietan edo getxobizilagunak@gmail.com helbidean. 55 pertsonentzako autobusa irtengo da 09:00etan Algortako metroko markesinatik, eta 9:15ean Areetako Geltokia plazatik.

Zurrumurruen kontrako askaria

Bestalde, ostegunean, ekainaren 29an, gazteentzako Zurrumurruen kontrako informazio-askaria izango da Getxolan egoitzan, Areetan (Ogoño, 1) Udalak antolatuta. Saioan, Zurrumurrurik Ez ekimeneko agente batek Estrategia aurkeztuko du eta zurrumurruen kontra borrokatzeko era azalduko die gazteei eta baita herri interkulturala eta begirunetsua herritar guztiekin eraikitzen laguntzeko ere. Askaria 18:30ean hasiko da.

GETXOAKTIBATU!

JARDUERA AGENDA. Ikusi www.getxoaktibatu.com webgunean

UZTAILAK 1		Paddel surf eskolak Antolatzaila: NorthWind Getxo kluba	LEKUA: Ereagako hondartza	IZEN-EMATEA: Aurretiazko izen-ematea (eguraldi berrari izanez gero, beste egun batean egingo da eta izena eman dutenei jakinaraziko zaie)
			ORDUA: 10:30-12:30	INFO: getxoaktibatu@getxo.eus
UZTAILAK 5		Bidaiatzeko frantses tailerra Antolatzaila: BonjourGetxo! Frantsesezko Zentroa	LEKUA: Algortako Etorbidea, 84, 1. (Algorta)	IZEN-EMATEA: Aurretiazko izen-ematea
			ORDUA: 18:30-19:30	INFO: 946 039 371 info@bonjourgetxo.com
Uztailaren asteazkene- nero		Udako yug yoga tailerra Antolatzaila: Anahata Kultur Elkartea	LEKUA: Portu Zaharreko landa	IZEN-EMATEA: Sarrera librea
			ORDUA: 19:00	INFO: asociacion.anahata@gmail.com
UZTAILAK 8		Tangoterapia tailerra Antolatzaila: Susana G. Sachetti Salvador, bioenergiako analista, TRE aditua eta tangoterapeuta	LEKUA: Bien Portaña, Areetako Etorbidea, 2, 5. Eskuina (Areeta)	IZEN-EMATEA: Aurretiazko izen-ematea (bakarrik joan ahal da)
			ORDUA: 11:00-14:00	INFO: 688 603 070
UZTAILAK 8		Urperkaritza eskolak Antolatzaila: Getxo Dive	LEKUA: Ereagako hondartza	IZEN-EMATEA: Aurretiazko izen-ematea
			ORDUA: 11:00-13:00	INFO: getxoaktibatu@getxo.eus